Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko urtarrilaren 25a, osteguna — 18 — Jueves, a 25 de enero de 2018

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## AZPEITIKO UDALA

*Iragarkia*

Alkatetzak 2018ko urtarrilaren 17an emandako Ebazpenaren bidez, Azpeitiko Plangintzarako Arau Osagarrien Berrazterketan «Landeta» 18 Hirigintza Eremuko «Urbitatxo Alde» 18.4 azpieremuaren exekuziorako hitzarmenari hasierako onarpena eman zion.

Horrenbestez, eta Lurraren eta Hirigintzaren Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren zortzigarren paragrafoan xedatutakoa betetzeko, Azpeitiko Udal honen Idazkaritzan jarriko da jendaurrean, 20 eguneko epean, Ediktu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoreneko lehenengo lanegunetik hasita.

*«Landeta» 18. Hirigintza-Eremuko «18.4 Urbitatxo Alde» Azpieremuari dagokion kontzertazio-hitzarmenaren proposamena.*

Azpeitian, bi mila eta hamazazpiko ........................................

BILDUTA

Alde batetik: Eneko Etxeberria Bereziartua ............................

Eta bestetik: Iñaki Soraluce Echaniz .......................................

ESKU HARTZEN DUTE

Eneko Etxeberria Bereziartua jaunak, Azpeitiko udaleko Alkate - Udalburu gisa, emandako eskumenak baliatuz ........ .................

Iñaki Soraluce Echaniz jaunak, adin nagusikoak eta ............. zenbakiko NAN duenak, Muno, S. A. Merkataritza Sozietatearen izenean eta ordezkari gisa, eta Administratzaile Solidario gisa, Azkoitiko Trenbidearen Zumardia 13-15, behea, helbidea eta A-20060794 IFZ dituenak. Administratzaile Solidario gisa du ordezkaritza hori, eta haren izendapena José María Gómez Riesco Tabernero de Paz Notarioaren aurrean, 254. Zenbakiko Protokoloan, 2012ko maiatzaren 2an sinatutako eskrituran dago jasota, hain zuzen ere, Probintzia honetako Merkataritza Erregistroan, Inskripzio-Liburuko 1.077. Liburukian, 43. Folioan, SS-1812 Orrian, 21. Inskripzioan inskribatuta.

Alderdiek badute eta elkarri aitortzen diote behar adinako legezko gaitasuna Kontzertazio Hitzarmen hau formalizatzeko, eta xede horretarako azaltzen dituzte hauek:

AURREKARIAK

I. Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak behin betiko onespena jaso zuen 2013ko irailaren 17an egindako udalaren osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

Hirigintza-arloko antolamendu integraleko dokumentuak mugatzen dituen eremuen artean, «Landeta» 18. Hirigintza Eremuko «18.4 Urbitatxo alde» azpieremua dago, hiri-lurzoru finkatugabe gisa sailkatutakoa eta jarduera-eremu integratu bakar gisa eratuko dena, bere antolamendu xehatua barne.

II. Esku hartzen duen merkataritza-entitateak aurkeztu du, izapidetzeko xedez, Udal Administrazioaren aurrean Hirigintzako

## AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

*Anuncio*

Por Resolución de Alcaldía de 17 de enero de 2018, se aprobó con carácter inicial el convenio para la gestión de la Unidad de Ejecución 18.4 «Urbitatxo alde» del Área Urbanística 18 «Landeta» del Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia.

En consecuencia, y de conformidad con el párrafo octavo de la Disposición Adicional Séptima de la Ley del Suelo y Urbanismo, el correspondiente documento se expone al público en la Secretaría de este Ayuntamiento de Azpeitia, durante el plazo de 20 días, a partir del día siguiente hábil al de la publicación del presente edicto en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

*Propuesta de convenio concertación referido al subámbito «18.4 Urbitatxo Alde» del Área Urbanística 18 «Landeta».*

En Azpeitia, a ...........................................................................

REUNIDOS

De una parte: D. Eneko Etxeberria Bereziartua ......................

De la otra: D. Iñaki Soraluce Echaniz .......................................

INTERVIENEN

D. Eneko Etxeberria Bereziartua, en su condición de Alcalde - Presidente del Ayuntamiento de Azpeitia, en desarrollo de la facultades que le fueron conferidas ................................................

D. Iñaki Soraluce Echaniz, mayor de edad y con ................. en nombre y representación de la Entidad Mercantil Muno, S.A., en su condición de Administrador Solidario de la misma, con domicilio en Trenbidearen Zumardia n.º 13-15, bajo, de Azkoitia y N.I.F. n-.º A-20060794. Ostenta dicha representación en su condición de Administrador Solidario, cuyo nombramiento consta en escritura otorgada en Azkoitia ante el Notario D. José María Gómez Riesco Tabernero de Paz, al n.º 254 de Protocolo, el día 22 de mayo de 2.012, inscrita en el Registro Mercantil de esta Provincia al Tomo 1.077 del Libro de Inscripciones, Folio 43, Hoja SS-1812, Inscripción 21.ª

Tienen y se reconocen las partes capacidad legal suficiente para la formalización del presente Convenio de Concertación, a cuyo fin exponen los siguientes.

ANTECEDENTES

I. El Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia fue aprobado con carácter definitivo mediante acuerdo adoptado por el Pleno Municipal en sesión celebrada el 17 de septiembre de 2013.

Entre los distintos ámbitos que delimita el documento de ordenación integral en materia urbanística, se encuentra el subámbito «18.4 Urbitatxo alde» dentro del Área Urbanística 18 «Landeta AU», que se categoriza como suelo urbano no consolidado y se configura como un único ámbito de actuación integrada incluyendo su ordenación pormenorizada.

II. Por parte de la Mercantil interviniente se ha presentado ante la Administración Municipal, para su tramitación, el Pro-

EK\CV GAO-I-2018-00385

Jarduketa Programa, «18.4 Urbitatxo alde» azpieremu osoa Egikaritze Unitate bakarrean biltzen duena. Egikaritze Unitate hori kontzertazio-jarduketa pribatuko sistemaren bidez garatu eta egikarituko dela xedatu da. Hirigintzako Jarduketa Programa horrek badu, dagoeneko, hasierako onespena 2017ko urriaren 19ko Alkatetza Dekretuari esker.

III. «Muno, S.A» merkataritza-sozietatea da horrela mugatutako Egikaritze Unitateko titulartasun pribatuko lurren jabe bakarra. Hori dela eta, Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 160.1 artikuluan xedatutako baldintza beteko da dokumentu hau formalizatu ahal izateko. Horren eranskin gisa doa Egikaritze Unitate hori barne hartzen duen titulartasun pribatuko erregistro-finka bakarraren deskribapenari, titulartasunari eta kargei buruz Jabetza Erregistratzaileak emandako ziurtagiria.

IV. Aurreko guztia azaldu ondoren, Azpeitiko udalak, administrazio jardule gisa, eta «Muno, S.A» merkataritza-sozietateak, Egikaritze Unitateko titulartasun pribatuko lurren jabe bakar gisa, «18.4 Urbitatxo alde» azpieremuan mugatutako Egikaritze Unitatearen hirigintza-kudeaketa eta egikaritzea gauzatzen lagunduko duten neurriak modu bateratu eta koordinatuan antolatzeko xedez eta Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 160.1 artikuluan eta ondorengoetan xedatutakoaren arabera, hitzarmen hau formalizatuko dute eta honako baldintza hauen arabera arautuko da,

BALDINTZAK

*Lehena. Kontzertazio-batzarra.*

«Muno, S.A» eremuko titulartasun pribatuko lurren jabe bakarra dela kontuan hartuta eta ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 160.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, «18.4 Urbitatxo alde» azpieremuko Egikaritze Unitatearen kudeaketa kudeatzeko ez da beharrezkoa Kontzertazio Batzordea eratzea.

Horren ordez, merkataritza-sozietate horrek, edo finkaren titulartasuna subrogatzen duenak, une oro erantzungo du Azpeitiko udalaren aurrean urbanizazio osoa egikaritzeko eta gainerako hirigintza-kargak betetzeko orduan, eta hori guztia Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 27.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

*Bigarrena. Birpartzelazio-proiektua.*

«Muno, S.A»-k edo bere ordezkoak, Azpeitiko udalaren aurrean aurkeztuko du «18.4 Urbitatxo alde» azpieremuko Egikaritze Unitatearen Birpartzelazio Proiektua Hirigintzako Jarduketa Programan ezarritako epean.

Aipaturiko birpartzelatze-proiektuak Egikaritze Unitate osoari eragingo dio, eta ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, neurri urgenteei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak, eta Hirigintza Kudeaketako Erregelamenduak dokumentu-mota horretarako xedatutako zehaztapenak jasoko ditu.

*Hirugarrena. Azpeitiko udalaren prerrogatibak.*

Baldin eta «Muno, S.A» merkataritza-sozietateak, edo bere eskubide eta betebeharrak subrogatzen dituenak kontzertazio-sistemako legezko konpromisoak edo Hitzarmen honetan jasotakoak ez baditu betetzen, Azpeitiko udalak kontzertazio-sistemaren ordez plangintza ahalik eta ongien egikaritzeko onena iruditzen zaiona jarri ahal izango du.

*Laugarrena. Lurren ekarpena eta derrigorrezko eta doako lagapenak.*

«Muno, S.A» behartuta dago kudeaketa-esparruko lurrak jartzera eta Azpeitiko udalari titulartasun publikoko azalera guztiak batere kargarik gabe lagatzera, Plangintzan xedatutako aurreikuspenei jarraituz.

grama de Actuación Urbanística, que incluye todo el subámbito «18.4 Urbitatxo alde» en una única Unidad de Ejecución para la que se establece su desarrollo y ejecución mediante el sistema de actuación privada por concertación. Dicho el Programa de Actuación Urbanística cuenta ya con la aprobación inicial en virtud de Decreto de Alcaldía de fecha 19 de octubre de 2017.

III. La mercantil «Muno, S.A» es la propietaria única de los terrenos de titularidad privada de la Unidad de Ejecución así delimitada, por lo que se da cumplimiento al requisito establecido en el art. 160.1 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco para poder formalizar este documento. Como Anexo al mismo se acompaña la certificación expedida por el Sr Registrador de la Propiedad, relativa a la descripción, titularidad y cargas de la única finca registral de titularidad privada que incluye dicha Unidad de Ejecución.

IV. Expuesto cuanto antecede, el Ayuntamiento de Azpeitia, en su condición de Administración actuante, y la mercantil «Muno, S.A», como propietaria única de los terrenos de titularidad privada incluidos en la Unidad de Ejecución, al objeto de articular de forma conjunta y coordinada las medidas que coadyuven a la culminación de la gestión y ejecución urbanística de la Unidad de Ejecución delimitada en el subámbito «18.4 Urbitatxo alde», de conformidad con lo dispuesto en el art. 160.2 y siguientes de la Ley 2/2006, de 30 de junio, proceden a formalizar el presente convenio que se regirá con arreglo a lo dispuesto en las siguientes,

ESTIPULACIONES

*Primera. Junta de concertación.*

Al ser « Muno, S.A» propietario único de los terrenos de titularidad privada incluidos en el ámbito, de conformidad con lo dispuesto en el art. 160.5 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, para la gestión de la gestión de la Unidad de Ejecución del subámbito «18.4 Urbitatxo alde», no se requiere la constitución de la Junta de Concertación.

En su lugar, dicha mercantil, o quien se subrogue en la titularidad de la finca, responderá en todo momento ante el Ayuntamiento de Azpeitia de la ejecución completa de la urbanización, así como del cumplimiento de las restantes cargas urbanísticas, y ello de conformidad con lo dispuesto en el art. 27.1 del Real Decreto Legislativo 7/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Suelo y Rehabilitación urbana.

*Segunda. Proyecto de reparcelación.*

«Muno, S.A» o quien traiga causa de ella, formulará ante el Ayuntamiento de Azpeitia el Proyecto de Reparcelación de la Unidad de Ejecución del subámbito «18.4 Urbitatxo alde», en el plazo establecido en el Programa de Actuación Urbanizadora.

Dicho proyecto reparcelatorio afectará a la totalidad de la Unidad de Ejecución, y contendrá las determinaciones que para este tipo de documentos establece la Ley 2/2006, de 30 de junio, el Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes, así como el Reglamento de Gestión Urbanística.

*Tercera. Prerrogativas del Ayuntamiento de Azpeitia.*

En el supuesto de que «Muno, S.A», o quien se subrogue en sus derechos y obligaciones, incumpliere los compromisos legales de la concertación, o los recogidos en el presente Convenio, el Ayuntamiento de Azpeitia podrá sustituir en cualquier momento el sistema de concertación por el que considere oportuno para la mejor ejecución del planeamiento.

*Cuarta. Aportación de los terrenos y cesiones obligatorias y gratuitas.*

«Muno, S.A» se obliga a aportar los terrenos incluidos en el ámbito de gestión, así como a ceder libre de cargas al Ayuntamiento de Azpeitia todas las superficies que sean de titularidad pública en virtud de las previsiones establecidas en el Planeamiento.

EK\CV GAO-I-2018-00385

Azpeitiko udalak lagapena eragin zuten xedeetarako erabiliko ditu azalera horiek.

*Bosgarrena. Urbanizazio-kargak.*

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeko 160.2.d) artikuluan xedatutakoaren arabera, esku hartzen duen merkataritza-sozietatea behartuta dago urbanizazio-karga guztiak bere gain hartzera eta Egikaritze Unitateko urbanizazio-obrak egikaritzera.

*Seigarrena. Hartutako konpromisoen bermea.*

Hitzarmen honen baitan «Muno, S. A.»-k hartutako konpromisoak Azpeitiko udalaren aurrean bermatuko dira abal bat formalizatuta eta hari emanda edo abalaren baliokidea dirutan emanda, hain zuzen ere, 20.832,63 €, Egikaritze Unitatearen urbanizazio-kargen % 7 ri dagokiona, Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 160.6 artikuluak xedatutakoa betez.

*Zazpigarrena. Plangintza xehatuko eta hirigintzako jarduketa-programako legezko aurreikuspenak betetzea.*

Hitzarmen honetan berariaz jaso ez diren alderdiak Euskal Herriko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeko eta aipaturiko Hirigintzako Jarduketa Programako aurreikuspenen arabera arautu eta interpretatuko dira.

*Zortzigarrena. Udal-administrazioaren konpromisoak.*

Azpeitiko udala behartuta dago « Muno, S.A.» merkataritza-sozietateak aurkeztutako dokumentuak eta proiektuak izapidetzera eremua erabat garatu eta kudeatzeko.

*Bederatzigarrena. Jurisdikzioa.*

Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du eta bere interpretazioaren, aldaketaren edo ebazpenaren inguruan sortzen diren auzi guztiak udalak berak ebatziko ditu. Udalaren erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari eta horien aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da.

Aurretiko baldintzen edukia irakurri ondoren, ontzat ematen dituzte eta horien edukia berretsiz goiburuan adierazitako lekuan eta datan sinatzen dute.

Azpeitia, 2018ko urtarrilaren 19a.—Eneko Etxeberria Bereziartua, alkatea. (385)

El Ayuntamiento de Azpeitia destinará dichas superficies a los fines que motivaron su cesión.

*Quinta. Cargas de urbanización.*

De conformidad de lo dispuesto en el artículo 160.2.d) de la Ley de Suelo y Urbanismo, la mercantil interviniente se obliga a asumir la totalidad de las cargas de urbanización y a ejecutar las obras de urbanización de la Unidad de Ejecución.

*Sexta. Garantía de los compromisos adquiridos.*

Los compromisos adquiridos en virtud del presente Convenio por «Muno, S. A.» serán garantizados ante el Ayuntamiento de Azpeitia mediante la formalización y entrega de un aval, o del equivalente en metálico, por importe de 20.832,63 €, equivalente al 7 % de la cuantía estimada de las cargas de urbanización de la Unidad de Ejecución, dando cumplimiento a lo que determina el art. 160.6 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco.

*Séptima. Supeditación a las previsiones legales, del planeamiento pormenorizado y del programa de actuación urbanizadora.*

Aquellos aspectos no recogidos expresamente en el presente Convenio, se regirán e interpretarán con arreglo a las previsiones de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, así como del Programa de Actuación Urbanizadora del ámbito.

*Octava. Compromisos de la administración municipal.*

El Ayuntamiento de Azpeitia se obliga a tramitar los documentos y proyectos presentados por la mercantil «Muno, S.A. para el completo desarrollo del ámbito.

*Novena. Jurisdicción.*

Este Convenio tiene carácter jurídico–administrativo y cuantas cuestiones litigiosas surjan sobre su interpretación, modificación o resolución, serán resueltas por la Entidad Municipal, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa y contra los mismos habrá lugar al recurso contencioso–administrativo.

Leído el contenido de las precedentes estipulaciones, las encuentran conformes, por cuanto ratificándose en su contenido, firman en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

Azpeitia, a 19 de enero de 2018.—El alcalde, Eneko Etxeberria Bereziartua. (385)

EK\CV GAO-I-2018-00385